



Osakidetza

DEBAGOIENeko
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ALTO DEBA

Pediatria arloko osasuna kezkatzat hartuta, umeen obesitatearen prebentzioa da PENSOI programaren helburu nagusia (disziplina ugariko ekipo baten bidez); hortaz, ohitura hobeak proposatu nahi ditugu, bizimodu osasuntsuagoa lortzeko, janari osasuntsu eta orekatuagoari nahiz ariketa fisikoa egiteari dagokienez. Helburu horri begira, **kirol-errezeta** ezarri dugu Debagoieneko ESIIn, arriskupean dauden umeen arretarako; Mankomunitatearen laguntza edukiko dugu horretarako, kirol-teknikarien bidez, hain zuzen ere.

Horretaz gain, **zabalkunde-kanpaina** bat jarri dugu abian, elikadura osasuntsu eta orekatua eta ariketa fisikoa egiteko ohiturak sustatzeko.

Ikastetxe (Berritzegunerekin lankidetzan arituta) eta udal guztietara helduko gara poster eta bestelako hedabide batzuen bidez (e-mailak eta sare sozialak), eta osasun arlora nahiz ospitale eta lehen mailako arretara ere helduko gara.

Ekimen hauei esker, gizartean eragin positiboa lortzeaz gain, osasun-arazo honi ekiteak daukan garrantziari buruzko kontzientzia ere lortu nahi dugu. Laguniezaguzu zabaltzen eta partekatu ezazu, kate osasuntsua sortu ahal izateko.